

# 2021eko urriaren 4ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, ETCHEVERRY, OXARANGO, PEREZ, SABALOUÉ andreak eta BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU, BARNECHE jaunak  
Ezin etorria jakinarazia zutenak : BARBIER  
Bilkurako idazkaria: OXARANGO Maïté

## 1. Aurrekontu nagusiari buruzko 1. aldaketa erabakia

### INBESTIMENDUAK

<b>Gastuak</b>		<b>Irabaziak</b>	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
16878 (16): Beste erakunde era partikularrak	339 975,00	021 (021): Funtzionamendu sailaren transferentzia	-801,00
16878 (16): Beste erakunde era partikularrak	39 492,00	16878 (041): Beste erakunde era partikularrak	736 114,00
2121 (21): Zuhaitz eta zuhaixken landatzea	2 431,00	2138 (21): Beste eraikuntzak	69 049,00
2188 (21): Beste immobilizazio gorpuzdunak	66 618,00	27638 (27): Beste erakunde publikoak	339 975,00
27638 (27): Beste erakunde publikoak	-39 492,00	2802 (040): Hirigintza dokumentuari lotu gastuak	651,00
27638 (041): Beste erakunde publikoak	736 114,00	28041642 (040): Eraikinak eta muntadurak	1,00
		281531 (040): Ur ekartze sareak	147,00
		281532 (040): Saneamendu sareak	2,00
	<b>1 145 138,00</b>		<b>1 145 138,00</b>

### FUNTZIONAMENDUA

<b>Gastuak</b>		<b>Irabaziak</b>	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
023 (023): Transferentzia inbertsio sailera	-801,00		
6574 (65): Dirulaguntzak elkarte eta pribatuen funtzionamendurako	-200,00		
6714 (67): Dirulaguntzak eta sariak	200,00		
6811 (042): Immobilizazio gorpuzgabeen eta gorpuzdunen amortizaziorako emaitza	801,00		
	<b>0,00</b>		

<b>Gastuak orotara</b>	<b>1 145 138,00</b>	<b>Irabaziak orotara</b>	<b>1 145 138,00</b>
------------------------	---------------------	--------------------------	---------------------

Kontseiluak onartu du

## 2. 2021-2025eko bide obrak - Hitzarmen oinarri-emailearen izenpetzea

Prozedura egokitu kontsulta bat antolatu da eskaera merkaturako hitzarmen oinarri-emailearen araberako bide obrak eginen dituen enpresa hautatzeko, eskaera taldean eginez Beskoitzeko herriarekin (koordinatzailea).

Elkarrekin eskaintzak ikertu ondoan, erabaki dugu merkatua Colas enpresari ematea.

Lau enpresa aurkeztu ziren: Colas, Eurovia, Dubos, Exedra. Negoziatu ondoan, Colas da hobekienik sailkatu (prezioari eta teknikari doakienez).

Herriak prezio doi bat apalagoak ukanen ditu heldu diren 3 urteetan.

Kontseiluak onartu du auzapezak merkatua eta ordezkari izenpetu ditzan, eskualdatzeari buruzko erabaki oro hartzeko.

### **3. Joan-etorri gastuen plantan ezartzea**

Lurralde elkargo bateko lurralde langileek eta noiztenkako parte hartzaileek beren karguaren kariatara pagatu gastuen ordainketa ukan dezakete. Araubidearen arabera neurri orokorra finkatua da, baina elkargoetako organo erabakitzaileei eskumena ematen die ordainketa moldeak finkatzeko eta diru itzultze zenbatekoa egokitzeko.

Puntu hauen deliberatzea proposatu da:

- Aldi bateko joan-etorrien kariatara izan diren garraio gastuen diru itzultzea – Indarrean den kilometro ordainsariaren arabera
- Apairu gastuen eta ostatu gastuen diru itzultze tasak (gehienik 17,50 € apairu bakoitz)
- joan-etorri gastuak ordaintzea konkurtso, selekzio edo azterketa profesional batera aurkezten diren langileei,
- Garraio publikorako abonamenduen parte baten dirua itzultzea etxetik lanera joateko garraio publikoa erabiltzen duten langileei.

Horrek ikastaldi eta misio ordainsarietarako ere balioko du.

Kontseiluak onartu du

### **4. Obrak arauen arabera eginak direla kontrolatzea + hirigintza baimenei doazkien obren segimendua**

Hazparnealdeko herriek zerbitzu bat plantan ezarri nahi izan dute hirigintza baimenen kariatara egin obrak arauen arabera eginak direla kontrolatzeko.

Euskal Hirigune Elkargoaren Hirigintza Zerbitzuak du esperimentazio hori eramaten, eta urte hondar honetan has liteke, urte baterako. Bukaeran, bilana eginen da. Kasuaren arabera, zerbitzuak 150 € eta 200 €-ren artean gosta lezake hirigintza baimen bakoitz.

Kontseiluak auzapezari baimena eman dio hitzarmen horren izenpetzeko.

### **5. Euskarako formakuntzari buruzko eskaera taldean parte hartzea**

Euskal Elkargoak, bere hizkuntza politikaren kariatara, bere langileei proposatzen die euskara ikasteko eskaintza profesionala, eta pusatzen ditu herriak gauza bera egitera, hobekuntza kontratuen bidez. Eskaintza horretan euskarako formakuntza bada, baita ere loturik diren zerbitzu guztiak (mailaren ebaluazioa formakuntza hasi aitzin, segimendu pedagogikoa, bilana, etab.).

Elkargoek proposatu formakuntza zerbitzuak berdinak izanik, Euskal Hirigune Elkargoak proposatzen du euskarako formakuntza zerbitzua erosteko taldea muntatzea.

Euskal Elkargoa da koordinatzailea, merkatua apailatuko du eta honen kontsulta eta esleipena segurtatuko. Horrela, hitzarmen hori izenpetu duten elkargoek Euskal Elkargoaren gaitasunaz balia daitezke bai hizkuntza politikaren alorrean bai eskaera publikoaren alorrean.

Kontseiluak auzapezari baimena eman dio hitzarmen horren izenpetzeko.

## 6. Eskola pribatuko IKKEren eta SEASKAren laguntzea

Kontratupean diren eskolen funtzionamendurako prezio finkoa	2021	2020	2019
Eskola pribatuko IKKE (675 € Aiherrako haur bakoitz)	19 575,00	18 900,00	18 125,00
Jantegiko langilearen ordainketa	1 700,00	1 680,00	1 653,00
Seaska (675 € Aiherrako haur bakoitz)	18 225,00	15 525,00	13 750,00
	<b>39 500,00</b>	<b>36 105,00</b>	<b>33 528,00</b>

## 7. DIRULAGUNTZAK ELKARTEEI

Dirulaguntzen emateko proposamena	2021	2020	2 019	Beste dirulaguntza galdeen zerrenda
Abarratia	700,00	700,00	500,00	Ikas Bi
Irulegiko Irratia	200,00	200,00	150,00	AUIBEO
ACCA Lehena	250,00	250,00	210,00	CIDFF64
Eskola pribatuko burasoen elkarte	768,00	672,00	580,00	Integrazio Batzordea
AIHERRAKO CATM – PG	120,00	120,00	105,00	Xapata elkarte
Herria kazeta	250,00	180,00	150,00	Uda Leku
SOS Laborari	220,00	220,00	180,00	Euskal Haziak
Bidekoekin	200,00	200,00	200,00	Xalbador kolegioa
Lurzaindia	300,00	300,00	250,00	Janari bankua
Handisport Pays Basque	240,00	240,00	200,00	Kanaldudeko lagunak
Izpindar	150,00			AFSEP
				Bedatsia
				Urtsua kolegioko burasoen elkarte
				Euskal konfederazioa

Kontseiluak zenbateko horiek onartu ditu

## 8. Herriko dirulaguntzak

Herriko ikasleek departamendutik zer dirulaguntza ukanen duten jakin ondoan, proposatu da dirulaguntza hauen ematea 2020/2021 ikasturtean goi-mailako ikasketak egiteko: Departamendu Kontseilutik ukan zenbatekoaren % 30.

➤ DARGUY Peyo	27.00 €
➤ OYHARCABAL Iban	78.00 €
➤ GERMAN Thomas	27.00 €
➤ GERMAN Bastien	27.00 €
➤ GUIVARCH-HIRIGOYEN Manon	48.00 €
➤ LOYATHO Maider	33.00 €
➤ MONGABURE Xan	108.00 €
➤ SOULIGNAC Andréa	27.00 €
➤ ST GIRON Alice	27.00 €
➤ DELACOUR Amaia	93.00 €
➤ HIRIART Amaia	33.00 €
➤ SEOSSE-OXARANGO Maitane	63.00 €

## 9. KELEBen txostenaren onartzea

EKBTB (Eskualdatu Kargen Balioztatzeko Tokiko Batzordea) irailaren 15ean bildu zen eta lehendakaria eta lehendakariordea hautatu batzordekideen artean: Christian DEVEZE jauna (Kanboko herria) lehendakari hautatua izan da aho batez eta Maïder BEHOTEGUY anderea (Bardozeko herria) lehendakariorde hautatua izan da aho batez.

Atharratzeko kirol-gelaren (16 herri) eta loturik den bilkura-gelaren eskualdatu kargen balioztatzea. Muntadura horiek herriartekoak bihurtu dira, beraz, kalkulu bat egin da hunkituak diren herrien ordainsarien zenbatekoa apaltzeko.

Hondarkin berdeen zerbitzuaren bukaerari lotu eskualdatu kargen balioztatzea (Donibane Lohizuneko herria), herriak ordainsari hori berreskuratzeko.

Tokiko animazioen finantzamenduari lotu eskualdatu kargen balioztatzea (Donapaleuko herria eta Bidaxunealdea). Txostena onartu da.

## 10. Herriko Etxearen berritzea – Merkatu proposamena

Prozedura bururatzen ari da.

Modalitateak zein diren: enpresek behar dute ihardetsi eskaintza tekniko bati eta finantza eskaintza bati (70/30). Aurkezpen txostenak kontrolatu ondoan, galdera-arrapostu fitxa bat igorria zaie eta prezioak apaldu edo igan daitezke kasuaren arabera.

Obra batzuen eskaintza-deialdia emaitzarik gabe gelditu baita (06/08), bigarren deialdi bat egin da (16/09).

Atxikirik atzemanen duzu trukaketa horien laburpena, eta proposamenen laburbilduma taula.

Hastapen batean igogailuari doazkion obrak ez dira esleituko, zehaztasunen beha gaude.

Atxikiak izan ez diren enpresak laster abisatuko dira.

OBRA MOTAK	Balioztapena (BEZa gabe)	Zenbatekoa (BEZa gabe)	Enpresak
1- Bideak eta sareak – Obra larriak	138 500.00€	151 320.87 €	DIBARGINTZA
2- Zureria - Teilatua	34 800.00€	31 860.12 €	Mongabure/Fourcade
3- Kanpoko leihoak	30 000.00€	13 472.00 €	MIROITERIE DU GAVE ESM
4- Barneko leihoak	35 500.00€	50 851.00 €	EYHERART
5- Plastre lanak-Isolamendua	27 000.00€	27 311.00 €	C'BASQUE PLATRERIE
6-Lauza - Faiantza	6 000.00€	7 579.98 €	OYHAMBURU
7-Zoladura malguen estaldura	11 000.00€	9 942.63 €	LINO TAPIS
8- Tindua-Garbiketa	18 000.00€	10 157.50 €	PEYO INDART ESM
9-Igogailua	17 000.00€	21 400.00€	MYD'L SAS
10- Berogailua – Haizeztapena – Iturgintza-Xahutasun tresnak	32 000.00€	22 801.92 €	FAUTHOUX
11- Elektrizitatea	30 000.00€	22 897.27 €	CHAPELET SAINT JEAN
OROTARA BEZa gabe	379 800.00€	369 594.29€ €	

## FINANTZAMENDU PLANA

Gastuak	Zenbatekoa (BEZa gabe)	Irabaziak	Zenbatekoa
Obrak	369 600,00 €	BEH	157 205,00 €
		Departamendu	
		Kontseilua	98 253,00 €
Azterketak	48.048,00 €	Euskal Elkargoaren	
		laguntza funtsa	8 000,00 €
		<i>Dirulaguntzak orotara</i>	<i>263 458,00 €</i>
		Diru propioa	154 190,00 €
OROTARA	417 648,00 €	OROTARA	417 648,00 €

### Gainerako gaiak:

Jakinarazten dizuegu herri lurren alokatze kontratudunak automatikoki aldatu beharko direla aurtan.

Jean Pierre Idiarten alokatze kontratua: **G565 G581**: 1ha02a eta **G584: 2ha34a** lursailak.

Aita semeen arteko ondoriotasun automatikoa

Jean Pierre Darraidouren alokatze kontratua: **G 59**: 93A40, **B801**: 36a95a, **B112p**: 4ha85a eta **C126-C131**: 1ha72a lursailak- Osaba-iloben arteko ondoriotasuna

Lursail hauek proposatu daitezke baserri-alokatze kontratu baterako. Hautagaitza igor Herriko Etxera 2021eko urriaren 20a gabe.

GEUZDBren inkesta: ikus atxikirik den dokumentua, eta adineko guzietei aipa.

9 lekuko ibilgailuaren saltzea: 11 000 € - Citroën Berlingo autoaren erostea: 6 240 € + obrak

Xokoko bideari buruzko inkesta publikoa: inkesta Aiherrako Herriko Etxean iraganen da 2021eko urriaren 12tik, asteartea, urriaren 26ra, asteartea. Permanentziak izanen dira urriaren 12an, asteartea, 9:00etatik 12:00etara, eta urriaren 26an, asteartea, 15:00etatik 18:00etara.

2x4 lekuko hilobiak instalatuko dira – Prezioak obren ondotik finkatuko dira erosleentzat

- Dirasseren aurrekontua: 1 893,60 € BEZa barne – Camouren aurrekontua: 2 436 € BEZa barne

Parekatze eguna Antzuolarekin azaroaren 13an, larunbatean – autobusa Herriko Etxeak ordainduko du

Txakurrak elkartearen kide egitea (zakurtegi bat ukaiteko HeBHeSa): gure iduriko oraingo ez dugu beharrezkoa. Ez du herriko zakur herratuen eta lanjerosen arazoa konponduko.

Proposatu da soinu sistema mugikorra erostea gure ekitaldietarako, eta herriko elkarteek erabiltzeko.

Bilkura 22:30ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide